

## IV. Dantza Topaketak Arantzarteren eskutik hilaren 12tik 18ra

12. orrialdea

## Blasida Pujanaren bizitza eta heriotza komiki baten kontauta

Maite Yurrebaso irudigile igorretarrak eta Igor Estankona idazle arteztarrak Igorreko Udalaren enkargua jaso eben 1937ko bonbardaketari lotutako komiki bat egiteko. Hori dala-eta, *Nork hil zuen egiazki Blasida Pujana?* nobela grafikoa egin dabe arratiarrak. 12. orrialdea



## Ruanda eta Ipar Osetiako jantzak Areatzako Folklore Bizian jaialdian

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 299

2018ko garagarriaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lemoako jaiak garagarriaren 26tik 31ra izango dira

Txupina 27an botako daben arren, aurreko eguna, jaietako Kirol Eguna izango da eta hainbat kirol jarduera egongo dira.



**M**G Banda, Suaia, Ama rebel, Riot propaganda, Ramoñas, Tximeleta erromeria taldea eta Urrats erromeria taldea izango dira Lemoako jaietan musikea ipiniko dabenak. Betiko lez, kuadrillak izango dabe protagonismoa, Ibaizabaletik egingo dan baltsen jeitsieran, gastronomia lehiaketetan, zein Rally Umoristikoa. Ondo paseteaz gainera, etxera danak modu seguruan bueltatu daitezkan, eraso sexista bako gunea izan daiten kanpaina abiatu dabe, drogen testing zerbitzua egongo da eta Arratiako herrietara bueltetako autobusa, "Gau Txoria" egongo da zapatu gauean. 5. orrialdea

## Ortuak udarako dira

**U**dako solstizioaren ostean, kaletarrentzako opor sasoi hasten danean, ortuan lanik gogorrenak egin behar dira: udan eta udagoienean batuko dana, erein eta landatu behar da oin. Udea, ez da bajeak egiteko sasoi bakarrik, ortuko beharrak egiteko sasoi be bada. Dana dala, ortua bizigarria dala eta zoriontsua izateko ortua landu egin behar dala dino Alvaro Rabellik bere erreportajearen. 8. eta 9. orrialdeak



### ARRATIA

## BEGITUREN Argazki Lehiaketea martxan

Urtero lez, Oporretako Argazki Lehiaketea ipini dogu martxan BEGITUN zuen momenturik ederrenak geugaz konpartidu dagizuezan. Lehiaketan parte hartzeako argazkiak urri lehenengoaren 25era arte bialdu daitezke [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Irabazleak sari dotoreak jasoko dabez, oporrak apurtxo bat luzatuteko edo ez aitzuteko.

Gehienez hiru argazki bialdu leikez egile bakotzak. Argazkiak titulua izan behar dau eta egilea nor dan eta noz eta non dagoan aterata esan behar da. 4. orrialdea



### ARRATIA

## Euskerea lan munduan sartzeako, eusGara proiektua

Arratiako zortzi enpresak, beharrian euskerea bultzatzeko hitzarmena sinatu dabe, Errota Fundazioa, Udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurilaritzeagaz. Holan, Errotak martxan daukan eusGara egitasmoa gauzatuko dabe enpresetan.

Sinatze ekitaldian, enpresetako ordezkariak, proiektua aurrera erroteko arduradun diran AEK-koak eta udalerrietako alkate edo zinegotziak egon ziran. Baita Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurilaritza koak be. Atzen honeek biak egitasmoaren garrantzia azpimarratu eben. Euskearek balio erantsia emoten deusala edozein produktu edo zerbitzuri esan eban Lorea Bilbaok. 7. orrialdea



## ARRATIA KOLOREETAN

## ESPAZIO HAU ZERI EMOTEA GURAKO ZEUNKE, IRAKURLE?

Arratia Koloreetan, Arratiako alkar-teen gaineko sailari amaiera emoteko momentua heldu jaku. Hori dala eta, gure irakurleak hor zer gura daben irakurri asmatzen hasi beharrean, zuzenean itaun-tzea pentsau dogu. Beraz, irakurle, espazio hau zeri emotea gurako zeunke?

Espazioaren helburua, arratiarrai Arratia ezetuten emotea da. Hemengo berbakerea, kantua, nekazaritza, historia eta oingo alkarteak tratu doguz, adituen eskutik, jakintza hori galdu ez daiten.

Arratia Koloreetan atzen urte bete t'erdia egon da bigarren orrialdeko goiko zatian, aurretik, 2014ko

aprilaren 15etik, 2016 urtea amaitu arte, Arratia Zuri-Baltzean izan genduan lez. Hara, hainbat historialarik gure bailarako antxinako kontuak ekarri euskuezan.

2013 urtea hasi zanetik 2014ko aprilaren 1era arte, Igitie baseritar agroekologikoen alkatetako arduratu ziran nekazaritza agroekologikoaren gaineko artikuluak bialtzen. Igitiek, Arratiako Musika Eskoleari hartu eutsan espazio honetan idazteko lekukoa. Izan be, 2011ko aprilaren 1etik 2012ko abenduko bigarren zenbakira arte, Kantu Herrikoiak zabaldu ebazan Arratiako Musika Eskoleak, partitura eta guzti.

Saila sortu zanetik Musika Eskoleak idatzi arte, Geure Berbategieri emon geuntsan lekua. Sasoi haretan, oin Gure Berbategiaren Leihotxuan egiten daben moduan, Angel Larreak eta Juan Rekaldek, Arratiako berbakerea bizirik mantenduteko egin eben behar, euren hamabosteroko artikuluagaz.

Eta hurrengo urte t'erdia inguruan, irakurle, helburu berberagaz, hau da, Arratia hobeto ezetuteko helburuagaz, espazio honetan zein gai tratu gurako zeunke? Iradokizunak, [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) posta elektronikora bialdu mesedez.

Eskerrik asko.



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak****09:00etatik 22:00etara****Garagarrilaren 2tik 8ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Cutierrez. Amorebieta-Etxano.

**Garagarrilaren 9tik 15era**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

**Garagarrilaren 16tik 22ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Garagarrilaren 23tik 29ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren**

902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Alvaro Rabelli.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketa:** Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milkua (Areatza),

Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol

Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita

(Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## ZEURE BERBEA

### Unibersidadea, Sancta Sanctorum

Zientzia eta sasi-zientzia. Doktoak eta besteak, unibersidadea: Sancta Sanctorum. Han ebatzi eta onartu izan danaren menpe guztiok. Zorionez, badagoz zabal begiratzeko gai diranak, eta honetan, euskal filologian dokorea dan eta euskal hizkuntzaz eta jakintzaz jantirik dagoan hurreko adiskide batek inostana, "batzuen ustez, dogmak ez dira gureak, auzokoarenak baino" beraz, "guk benetako zientziagaz bat egiten dogu eta beste 'adituak' ibilbide antzui jarraitzen deutsee", honek izen bat dauka: *la ley del embudo*.

Sasi-zientziatzat hartuz, unibersidadetik kanpo aztertze lanetan eta unibersidadearen kriterioa bakarraren eretxiakaz bat ez datozenai iruzur bideetan dagozala esatea, askotxo esatea da. "Sano erratuta zagoz Gontzal". Hau dok hau, Alvaro Rabelli jauna, garai honetan entzun beharrekoa! ez txartzat hartu, baina aspaldiko parrokoen itxurea dauka horrek, egia gurea da eta zuok, beste sasikumeok, guztiz erratuta zagozie. Eta ez nator, inondik inora, unibersidadea deslegitimatzera, neu be han ikasita nago, eta ezagupenaren onerako eta jakintza bideetan behar-beharrezkotzat jotzen dot beraz, baina musikea be orkesta-

tik kanpo egin daiteken antzean, zientzia bera be, unibersidadearen kriterioetatik kanpo egin eta azertu daiteke. Sarriegitan historiari begiratu, modu libreetan, bere kabuz dabizanak deskubrimentu zentzundunagoak eta onargarriagoak ekarten deuskuez.

Guztiok dakigu toponimiara ba-goaz, leku askotan agertzen dirala euskerazko jatorrizko izenak, eta horrek zeozer esan gurako dau, edota dana kasualidade hutsa ete da ba? Gure hizkuntza, bizirik dogun antxineko hizkera sistema handi baten irlatxo bat izan daiteke. Eta ez dot uste, euskerea eta iberiarra bat izango ziranik, baina garaian garaiko ahaidekotasun bat eukiko ebela bai. Ikerlari asko, lurra eta lurra emondakoa eta berarengandik jasotakoa aztertzean baino, liburuetan aurretik besteren batzuk idatzitakoa aztertzen dabiz, eta ha-reek idatzitakoak interpretetan.

Gaurko hizkuntzalariak, antigualeko kontu zahar horreek gaintuta daukiela-eta, onartutako zalantza bako kriterio bat eta bakarra jarraitu behar ete da ba? Zientziari exijidu beharko geunskiona zera da: jakintza, ezagupen librea, bideragarri izan daiteke. Eta zientzilariak, diskrepantziak erakusten dabezanen logikak, hutsaren hurrengotzat hartu aurretik, noz edo noz entzuteko gai izan daitezala. Jakina, lehenengo datuak dirala, gero hipotesia eta osten tesia, baina Sancta Sanctorumeko askok burdia idien aurretik ipinteko ohiturea daukie.

Ez dinot bide akademikoan

ez dagoala kriteriorik, ez, sarritan kriterio gehiegi dagoan ustea daukat, bide bat hartu eta bide horretatik urten ez egiteko modukoak, gainera norbera urteetan

ibili izan bada eretxi batez eta oin erratuta egon daitekela onartutea, hori ulertzen da, gogorra izan daitekela, artaldetik kanpo egotea modukoa da hori, eta gure

aspaldiko esaera batek inoana: "noren zerbitzuan egon, halako erantzunak emon".

GONTZAL MENDIBIL

## ERETXIA

### "Nik sinisten dizut", terrore sexualaren kontrako diskurso feministea

Nafarroako Auzitegiaren epaiari erantzun moduan gertatutako gizarte leherketaren ostean, andren kontrako indarkeriaren legitimatzeak eta 2016ko sanfeminetan izandako talde bortxaketearen zigorrak (gitxi-gizkoa argi eta garbi) ahalbidetzen daben testuinguru azertuko dogu.

Bizi garan testuinguru heteropatriarkal honetan, andren gorputzen eta sexualidadeen gaineko etenbako kontrola dago. Nortasunen eraikuntza patriarkalak eroaten dauz andrak entzuna ez izatera eta errutasunera; gizonak, barriz, andren gaineko poderea erabili daikien leku baten kokatzen ditu.

Bortxaketen gaineko tradiziozko pentsamentuak, adierazoten eban andrak erasotzaileak seduziduten ebezala, edo ez ebela behar beste-ko erresistentzia egiten. Egun, androk egunero bizi dogun indarkeria dudana ipinten jarraituten da eta honek zerikusia dauka gure errelatoa zilegizkoa ez izateagaz, gure ahotsa ixildua izan dalako modu sistematikoan historian zehar.

Beste alde batetik badakigu gizarte patriarkaletako praktika kultural guztiak bustiten dauan matxismoa dala-eta, androk sarritan garaikur moduan gagozala errepresentautu, umetatik hipersexualizautu, eta irakatsi deuskue zer egin daikegun eta zer ez. Horrek gure askatasuna mugatzen dau eta gure jokaerak baldintzatzen ditu,



IANIRE DE LA CALVA  
Feministalde

desbardintasuna betikotzeaz gainera. "Gizon izatearen" eraikuntza honetan indarkeriaren legitimazioa oinarritzkoa da. Bortxaketearen kultura honek, La Manadaren talde bortxaketen indarkeriarik ez igartzea dakar. Ezta, androk egunero sufriduten doguzan ikusi daitekezan eta ikusi ezin diran gainontze-ko indarkeria matxistetan be.

Beste alde batetik, gizartearen kontakizunean, bortxatzaileak eta hiltzaileak munstro moduan agertzen dira, euren delituak posible egiten dabezan eragileak aintzakotzat ez hartzeako. Psikopata edo kontrol bako zoro moduan deskribiduten dira, gure kontra egiten dan indarkeriaren zuztarretara ez joteko. Baina egia da erasotzaileak faktore komun bakarra daukiela; gizonak izateak. Patriarkaduan seme zintzoak dira, txikitatik hezi eta sozializautu andra baten ezetza ez onartuteko.

Ez dira kasu bakanak, 6 orduo bortxaketa bat gertatzen da, Jule Goikoetxeak gerra-egoerako zifratzat jotzen ditu, andren kontrako deklarazio bako gerrea. Gainera gerra honetan, eragindako indarkeria egiturazkoa eta estrategikoa da. Mutikoai ez bortxatzen eta ez erasotzen irakatsi beharrean, guri irakasten deuskue, umetatik, kontuz ibili behar dogula "jakin barik oso ondo zein dan arriskua, baina bai ebitau ezina dana", bakarrik ez ibiltzen, "geure buruak ez agertzen". Maitena Monroy azalduten dauan moduan, terrore sexuala, andren jokaera eta gorputzen gaineko kontrol tresna sano eraginkorra da.

Pasa dan apirilaren 26an emondako epaiak bost erasotzaileak zi-

gortzen ditu abusu sexual jarraitu delituagaitik eta eraso sexual kargutik erubakotzat jotzen ditu, talde bortxaketa basati haretan indarkeriarik eta bildurra arazoterik ez zala egon esanez. Mobimentu Feministek, ebatzi honen aurrean, lotsa eta haserre adierazo dau kaleetan, mobilizazio historikoen aldia izan dan eta dan honetan.

Prozesu judiziala *de facto*, biktima epaitu eta errudunen ustezko erubakotasunaren inguruan izan da. Psikologia eta psikiatriaren inguruko profesionalak epaiagazko euren desadostasuna erakutsi dabe eta NBEK berak be komunikatu bat zabaldu dau sistema judizialak biktimari botaten deusala errua salatzen. Ha-ta guzti be, larriena da ez dala sistemearen akats puntuala, ezta persona bat edo batzuen be, justizia sistema patriarkalak, funtzionetan dauan moduan funtzioneteara baino. Feminismo eta indarkeria matxistearen gaineko formakuntza oinarritzkoa da erakundeak eta epaiak, indarkeria sexualaren gaineko gaiak landuten trebatzeko. Oingoiz, justizia sistemeak andren kontrako indarkeria legitimatu egiten dau, zigorbakotasun eta tolerantzia mezu arrisksua emonaz.

Martiaren 8ko manifestazio jentetsu eta mundu mailan jasotakoak, *MeToo* eta *Time's Up* nazioarteko mobimentuak, eta gainezka egiten daben mobilizazio feministen eferbeszentziak erakusten dabe kultura patriarkala ez dala kuestionau ezina, diskurso misoginoak deseregi eta salatu egiten dirala, androk lotsa gaintzen gabizala ahizpatasunari esker, alkarregaz, ezarritako estigmatizazioa eta errua gaintzen, isiltasuna apurtzen. Mobimentu Feministek hamarkadak daroaz autodefensa feministako estrategiak eregiten bizitza libreagoak bizi daiguzan. Isiltzeko sasoi amaitu da, lotsea bandoz aldatutea gura dogu. Aske izan gura dogu, ez ausart.

\* Erredakzioan itzulita

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Eskusau



Etxean, zeregin fisiologiko batzuk, kaka eta txiza kasurako, egiteko gelari edo kuartuari eskusau esaten jako (eskusáue, eskusúe, ahoskatuta). Batuan, komun da. Eskusadu, eskusu, irol, komun eta kuartu-bainu berbak be erabilten doguz Arratian eta inguruan. Ur korrontearen faltan, gure arbasoen denporan ez zan eskusaurik egoten baserri-etxeetan. Eskusau berbea gatzelania zaharreko *escusado* berbatik dator.



## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIA

## Etorri da udea

**N**egua luze joan jaku aurten. Sasoi txarra euki dogu ia-ia harainegun arte. Esan leiteke urtaroen ordena aldatu egin dala, eta neguaren ostean udagoiena etorri jakula. Ez dogu udabarririk euki. Eta ez Arratian bakarrik. Bilbon bizi gara gaurko egunean, eta neguak hemen be gogor jo dau.

Negu moduko aro goibel honetan, hodeipean, beste datu batek be kezka bete nau: azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, Bilbon, euskerearen kale erabilera %2,5ekoa da. Arduratuta planteau dot gaia neure etxeko mahai-inguruan. Umeak peligran sentidu dodaz. Eta fronte batetik hastearren, benetako gerrea deklarau deusat neurean ergatiboari. Afalorduan, "nik egon naz" eta "nik gose naz" entzunda egin jataz niri neuri be hodeiak buru barruan.

Baina ailegau da bagilea-

ren 21a. Eta eguraldiak be igarri deutso urtaro aldaketeari. Etorri da eguraldi ona, urten da Lorentzo handia Mariren kobazulotik. Lorentzok egin deutse lagun San Juan suko garrai.

Eta bagilearen 21agaz, Lorentzozag eta San Juan suagaz batera heldu da opor sasoi be. Eta horrek poztu egin nau, alabak uriburuko galzoritik urrundu eta herrira joan diralako, eta, han bai, han euskera sanoa dagoalako. Arriskutik kanpo dagozala pentsautu, arnasea sakon hartu dot.



Alabaina, gaur goizean, armozetan gagozala, alabeak esan deust sano arraroa egiten jakola hemengo berbeta, "behia emoten dot" barik "behia pentsetan dot" esaten dabela bere lagunak. Ez dot tostadea amaitu. Interne ten sartu eta Lazkaorako autobustxartelak erosi dodaz.

## ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS

## Hamabitik lau, seriea



## BEGI TXINDORRA

**U**rtero lez, gure Argazki Lehiaketan parte hartu eta zuen bajeetan aterako argazkiak, irakurle guztiak konpartiduten konbidatzen zaitue BEGITUK. Betiko lez, irabazleentzat sariak egongo dira.

## Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
- 2.- Gaia: Argazkiak 2018 urtean egindako bajeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4.- Nora bialdu: Argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira.
- 5.- Aurkezteko epea: 2018ko garagarilaren 2tik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk.
- 6.- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariko erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7.- Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian bialduko da epaia emoteko eta urri bigarrenegun argitaratuko da.
- 8.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaia egoki jo ezker.
- 9.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## LEMOA

# Baltsen jeitsiera Ibaizabaletik eta mozorroak Lemoako jaietan

### Erredakzioa

Aurten, Zazparrak Asti Taldeak emongo deutse hasikerea jaiari garagarriaren 27an eta, txupinaren ostean, Mozorro Lehiaketan parte hartuko daberen guztiak kalejira joango dira Elizondoraino. Han izango da mozorroen balorazioa eta sari banaketea. Jaiak 31n amaituko dira "Garsu" jaietako maskotea erreta. Bitartean, kuadrillen ondo pasetako eta umorez betetako ekintza ugari egiteko aukerea egongo da.

Ikusgarriena eta Lemoako jaietako ezaugarri nagusia dana, baltsen jeitsiera da. Tallerretako zubitik zubi barrira arte, baltsa koloretzuek beteko da Ibaizabal erreka eta originalenak saria izango dau.

Kontzertuak jagokienez, aita behar da MG Banda, Arratiako reggae-ska taldea, Riot propaganda eta The Ramones taldeari tributoa egiten deusan Ramoñas banda.

### Segurtasuna

Segurtasuna bermatzeko, zapatu gauean, Elizondon, 22:00etatik 02:00etara, eraso sexistarik bako gunea egongo da, 23:00etatik 02:00etara, testing zerbitzua eta kotxea hartu behar ez izateko, herrietara bueltetako autobusa 02:30ean eta 05:00etan, Correos-etik urtengo da.

### Garagarriak 26, eguena Kirol Eguna

16:30ean, 15 urtetik beherakoen Futbito Txapelketaren finala. Kiroldegian. 17:00etan, Ping Pong Txapelketea eskolako patioan. 17:30ean, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketaren finala. Kiroldegian. 18:30ean, Eskupelota Txapelketaren finala beheko frontoian. 19:00etan, Padel eta Frontenis

Txapelketan finalak kiroldegian.

19:00etatik 20:00etara, Mozorro Lehiaketan (garagarriak 27) eta Rally Umoristikoa (garagarriak 30) parte hartzeako izen emotea kiroldegian. Aldez aurretik garagarriaren 25era arte be emon daiteke izena [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidean. Partiduak amaitutakoan kopaua parte hartzaileentzat eskolan.

### Garagarriak 27, barikua Mozorro Eguna. Gaia: Unibersoa.

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan. 19:00etan, txupina eta Jaietako Kartel Lehiaketaren sari banaketea udaletxeko plazan. 21:00etan, kuadrillen afaria kiroldegian, 18 urtetik beherakoentzat. 22:00etan, disko animazioa kiroldegian. 23:00etan, kontzertua eta erromeria Elizondon. Ramoñas taldea (The Ramones taldearen tributoa), eta Tximeleta erromeria taldea.

### Garagarriak 28, zapatua Gastronomía Eguna

11:00etan, puzgarri parkea eta jokoak eskoletan. 13:30ean, bits jai eskoletan. 13:30ean, Paella, Tortilla, Gisadu eta Makailao Lehiaketetako lapikoen aurkezpena. Ondoren, herri bazkaria eskoletan. 17:00etan, Zazparrak eta Kroaziara doazen gazteak alkarlanean antolatutako tailerrak eta jolasak eskoletan. 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak kiroldegian. 19:00etan, baltsen jeitsiera Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretako zubian. Baltsa guztiak batera urtengo dira eta amaieran alkar abordauko dabe.



20:30ean, sari banaketea Arlonagusia plazan.

20:00etan, jantzaldia Lotxo taldeagaz Arlonagusia plazan.

20:30ean, Tango, Bals eta Pasodoble Lehiaketea Arlonagusia plazan.

20:30ean, Sardina jana Arrantza eta Ehiza alkarlearen eskutik Arlonagusia plazan.

23:00etan, kontzertua eta erromeria Elizondon. Riot propaganda eta Urrats erromeria taldea. Goizaldean kopaua Elizondon.

### Garagarriak 29, domekea Alkartasun Eguna

13:00etan, Lemoa Txirindulari Elkartaren eskutik, zinta lasterketak Elizondon. 18:30ean, txosnak antolatutako terraza eta Andoni Magoaren *Des-Equilibrado* ikuskizuna txosnagunean. 20:00etan, Eusko labeldun oilasko pintxo dastaketea Elizondon. Batutako dirua AFESTA alkarlearentzat izango da, Tourette sindromedun eta euren familientzat. 20:30ean, txosnak antolatutako kontzertua txosnagunean. Noma-dak taldea.

### Garagarriak 30, astelehena Play-back Eguna

18:00etan, Kuadrillen arteko Rally Umoristikoa Mailuki tabernatik hasita. 22:00etan, ume eta nagusien Play-back Lehiaketea Elizondon. Izen emotea Mailuki tabernan Rally Umoristikoa hasi aurretik. 23:00etan, kontzertuak Elizondon. MG

Banda, Suaia eta Ama rebel taldeak.

### Garagarriak 31, martitzena Euskal Jaia San Inazio plazan 11:30ean, XXI. Artisautza Azokea

Atxeta taberna ondoko plazan.

12:00etan, mezea San Inazio babilizan. Meza ostean, Durundi Barri Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

17:30ean, diskofesta. Xaiborren ikuskizun barria *Zortzikotxia* San Inazio plazan.

18:00etan, Igel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat San Inazio plazan.

18:30ean, Igel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat San Inazio plazan.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat San Inazio plazan.

19:30ean, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat San Inazio plazan.

21:00etan, "Garsu" erre Elizondon. Ondoren, zozketea.

Baserritar jantzita dagozanai, plazan taloa eskuratzeko txartela emongo jakie. Txartelak 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bananduko dira.

## ARRATIA

# Sanferminetako bortxaketako erasotzaileak aske itxi izanaren kontrako konzentrazioak

### Erredakzioa

2016ko sanferminetako talde bortxaketearen auzian abusuagaitik kondenatutako bost erasotzaileak kartzelatik urteteko agindu eban Nafarroako Auzitegiak; izan be, behin betiko epaia izan arte, baldintzapean aske geratu dira. Epaia haserrea sortu dau eta epaiaren barri jakin zanean, elkarretaratzeak egin ziran protesta

egiteko. Iruñean eta Bilbon jentetsuak izan ziran. Arratian, Diman eta Artean be egin ziran konzentrazioak bagilaren 22an.

Diman 45 bat lagun batu ziran plazan, "Justizia patriarkalaren aurka. Ez da abusua, bortxaketa da!" inoen kartelakaz. Arteako plazan be beste horrenbeste lagun batu ziran sanferminetako talde bortxaketearen auziko atzen ebartzi judizialaren kontra agertzeko.



Ugatxa  
taberna

Ugarana kalea, 5  
48141 Dima  
T. 946 129 460

M. Jose zure arropa

94 631 90 08

Galanta

Merkealdia

Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

Jai batzordeak eta  
Lemoako Udalak

Gora San Inazioak!

JAI ZORIONTSUAK  
OPA DEUTSUEZ



## ZEANURI


## Zulaibarreko irakasleak European izan dira irakaskuntzako barrikuntzak ezetuteko

**Erredakzioa**

Erasmus+ programa baliatuz, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko Xiber Perez Arroita irakaslea Belgikako hainbat zentrotatik ibili da. VLOT! (Vrij Lokers Onderwijs voor jouw Toekomst) alkarteko Flandriako Lokeren herrian dagoan VTI Sint-Laurentius zentroa hartu-emonetan jarri ostean, bertara hurreratu eta informazio aberasgarria eskuratu dau, metodologia, klaseen banaketea, ebaluetako prozesuak, eta abarren inguruan. Zentro horretaz aparte, inguruko beste eskola batzuetatik be informazioa jasoteko aukera izan dau Zulaibarreko irakasleak.

"Irakaskuntza munduan, beste arlo askotan legez, norbere habitatik burua atera eta inguruan zer dagoan aztertutea onuraga-

ria suertatuten da, jasotako informazioa garatu ezker" dino Perezek. Abiapuntu hau izanda,



Xiber Perez hirugarrena ezkerretik hasita.

mobikortasun aukera aprobezatu dau Belgikako hezkuntza teknikoaren barri izateko.

Baina ez da Europatik ibili dan Zulaibarreko irakasle bakarra. Izan be, Arkaitz Bernaola Alemaniatic ibili da, Gorka Goikoetxea Holandatic eta losu Iriarte Italiatic. Bakotxaren betebeharrak desbardinak izan arren, biaje guztien helburua "Zulaibarren ezaguera aberastutea eta ikusitako barrikuntzak praktikan ipintea da. Zulaibarren etenbako garapena agerian itxiz".

## ARRATIA

## Udan hilean behin aterako da BEGITU

**Erredakzioa**

BEGITU hamabostekariak, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, beharginak oporrak hartu ahal izateko. Hau da, garagarriean eta abuztuan, hile baktotxean, zenbaki bakarra kaleratzen da,

hile hasikerakoa. Aurten be hola izango da, eta garagarriaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 1eko izango da.

Urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU.



## ARRATIA

## Politika xenofoboak salatuteko Italiara joango da Mugak Zabalduz karabaneak

**Erredakzioa**

Mugak Zabalduz karabaneak hirugarren biajea egingo dau oingo garagarriean eta bertan, aurrekoetan lez, izango da arratiarrik. Garagarriaren 13tik 22ra estatu osoko ekintzaileak Italiara joango dira, Europari mugak zabaltzeko eskatuten.

2016an Greziara joan ziran eta igaz Melillara. Aurten Siziliara joango dira, "momentu honetan Italia kakoa dalako Europak Afrikagaz dituan mugak kanporatzeko neurrietan: Libiagaz akordioak egin ditu, giza eskubideen urratzaile batzegaz, eta gainera Italia Bruselak emoten dituan laguntzen hartzaile nagusia da" dino Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformek. Gainera, gobernu barriagaz Italia "EBko politika hiltzaile eta xenofoboen erreferente bihurtu" dala dino.

Hilaren 18an Cataniara (Sizilia) heltzeako asmoa daukie eta hurrengo egunean elkarretaraztea egingo dabe hango portuan eta manifestazioa Frontex-en egoitzara arte.

**Errefujiadu Eguna Arratia**

Bagilaren 20an Errefujiaduaren Nazinoarteko Eguna izan zan. Zeanurin, Lemoan eta Diman berbarako, paleak erabiliz hormairudiak pintau ebezan eta kaminoan ipini "sikeran herrian presentzia eukiteko" azaldu eutsan BEGITU Arantza Iruretagoiena Arratiako OEEko kideak.

Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformea sano aktiboa da eta Zierbenan be lagunduten dau. Han Albaniako migratzaile pilo dago Ingalaterrara doan ferry-a hartu guran. "Albanian ez dago etorkizunik eta gazteak alde egitea ebazten dabe. Euren helburua Ingalaterra da, albaniar komunitate handia dagoalako han. Bitartean, ferryan sartzean saiatzen dira eta Zierbenan dagoz". Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek migratzaile honeei jateko beroa eta dutxatzeko aukera emoten deutse.

Horrezaz gainera, jai eta beste ekimenetan presentzia izaten dabe, "eskubide guztiak persona guztientzat" aldarrikatzeko.

## AREATZA / LEMOA

## Udako ugerlekuak zabalik

**Erredakzioa**

Eguraldiak lagundu ez eban arren, udako aire zabaleko ugerlekuak zabaldu ebezan atek bagilaren 16an eta urri lehenengoaren 16ra arte egongo dira zabalik Lemoakoak eta 9ra arte Areatzakoak.

Lemoan, ordutegia desbardina da hile baktotxean. Garagarriean, 11:00etatik 20:30era arte egongo dira zabalik piszinak; abuztuan, 11:00etatik 20:00etara arte, eta urri lehenengoan 11:00etatik 19:30era arte. Ugerlekuan, gimnasioan eta tabernan, gehienez 700 persona sartzean dira eta aforoa kontrolau

ahal izateko, sartzeako eta urteteko, sarrera tiketa erabiltea beharrezkoa da. Bazkideak, txartela erabili beharko dabe derrigor instalazinoetara sartzeako. Hamabi urte edo gitxia-



goko umeak ezin dira bakarrik sartu, adin nagusiko persona batzegaz egon behar dira.

**Areatzako ugerlekuak**

Areatzako piszinak 12 astez egongo dira zabalik. Orduetegiari jagokonean, 11:00etan zabalduen ditue atek, 20:00ak arte, astelehenetik domekara.

## ZEANURI

## Eider Ajuriagerra da EAJ-PNVk aurkeztuko dauan alkategaia

**Erredakzioa**

Zeanuriko Uri Batzar Jeltzaleak Eider Ajuriagerra aukeratu dau 2019ko Udal Hauteskundeetan alkategai izateko. Oingo legealdian kultura zinegotzia da Ajuriagerra.

Gaztea izatea, lan egiteko

daukan gaitasun handia, alkarrizketa zalea izatea eta Zeanurin bizi diran herritarrak ondo ezetutea dira alkategaiaren ezaugarri nagusiak, EAJ-PNVkoen arabera.

Ajuriagerrak "ilusinoz" hartu dau erronea. Kultura zinegotzi izanda, "asko ikasteko aukera izan dot. Bide

honetan emoten dodan pausu barria da eta argi daukat asko ikasiko dodala eta bide honetan hainbat ardura, ekarpen eta hobekuntza egongo dirala" dino. Ezinbestekotzat jotzen dau lantalde gogotsua izatea eta Zeanurirako proiektuen artean, azpimarratu dau aurreko legealdian hasitako plan eta egitasmoak landuten jarraituteak daukan garrantzia; herriko plaza zabaldutea; bideak moldatzea; auzoen arteko guneak egokitzea eta kultura taldeentzako guneak sortzea, beste batzuen artean.



Zeanurin panelak egiten.

Argazkia: OEE.



## ARRATIA

# Arratiako zortzi enpresak sinatu dabe euskerea bultzatzeko proiektua

Graficas Arratia, Lekun Caucho, Jandoniz, Tresnak Suministros Industriales, Industrias Bai, Comecaran, Ilunbe eta Ormaurrek, Errota Fundazioa, Udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzegaz hitzarmena sinatu dabe eusGara proiektua martxan ipinteko. Hau da, beharrean euskerea bultzatzeko.

### Erredakzioa

Errota Fundazioak abian daukan eusGara egitasmoa, Arratiako enpresai zerbitzua eta lana hobetzen laguntzeko egitasmoa da. Euskerea enpresetan bizibarrizteko planaren helburu nagusia da euskeraz bizi gura daben langilei eta herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diran hizkuntza politikako neurriak hartzea eta bultzatzea. Helburu hori lortzeko, hainbat enpresak, Errota Fundazioagaz akordioa sinatu dabe euskerearen erabilera indartzeko. Akordio honeri esker, enpresak euskerearen normalizazioan pausuak emateko konpromisoa hartu dabe eta Errotak, konpromiso horrekin gauzatzeko laguntza eskainiko deutse.

Egitasmoa oin dala urtebete sortu zan. Euskerea behar munduan bultzatzeko proiektua osotuten Lemoako Udala hasi zan, eta eskualde mailan egin behar

zala eretxita Errota Fundazioa jo eban. Proiektua aurrera aterateko finantziario bila, Errotak Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzara eta udaletara jo eban. "Hiru administrazioen babesagaz, urte ha-

sikeran hasi ginan kontratazioa adostuten eta eskaintza ateraten. Martiaren 19an, sinatu genduan kontratua AEK-ko Zuzendari Nagusiagaz eta hasi gara lanean" azaldu eban Iratxe Goikoetxea



Sinatze ekitaldia Areatzan.

Errotako koordinatzaileak bagilaren 22an Areatzan egindako sinatzeko ekitaldian.

### Euskerea balio erantsia enpresetan

Hitzarmena sinatu aurretik Lorea Bilbao Euskara eta Kultura Foru Diputaduak, beharrendun mundua klabea dala gizartea euskalduntzeko adierazo eban. Izan be, ahalegin handia egin da hezkuntzan, baina gero euskera lan munduan ez bada sartzean, egindako inbersino edo ahalegin hori galdu egiten da. "Umeak eta gazteak, %74 eta %75en bueltan, euskeradunak dira. Euretako asko Hezkuntza Sistemaren euskalduntutakoak. Baina egin daben ahalegin horrek zertarako balio deutse gero enpresak ez badabe

ikusten hori baliagarria dala?".

Bilbaoren ustez, euskereak balio erantsi bat emoten deutso produktu bateri eta merkadu barriak eskuratzen lagundu ahal dau. Euskerea "barrikuntza klabeetan hartu behar da" eta lehiakortasunera mobiduten dau enpresea, merkadu barriak lortuz.

### Udalerri guztiak adostua

Enpresak, Errotak eta erakundeak hitzarmena sinatu ostean, Josune Zabala Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendariak, proiektuak hasikera-hasikeratik izan ebala Jaurlaritzaren oneretia esan eban: helburuagaz bat egiten ebelako, udalerri guztietan onartuta egoalako, enpresakaz kontrastuta, BFAK babestua eta lankidetzan oinarritzen zalako. Eta lan mundua euskalduntzeko, egitasmo hau pausu handia izan leitekeala be uste dau Zabalak. "Arratia bailara oso euskalduna da eta aukera asko dauka lanaren eremuan, ekonomiaren eremuan, euskereak bere tokia izan dagian. Hezkuntzan badauka bere tokia, baina uste dogu beste pausu bat emon behar dala eta Arratian aukerak doguz.

Bizkaian 101 enpresak daukie Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria. "Horrek adierazoten dau badagoala gogo bat, euskerearen kudeaketea barrikuntza moduan hartzeako" eta Arratiako eusGara proiektuak beste "jauzi" bat izan daitekela esan eban Zabalak, eta Arratia, Bizkaian "erreferente" bat.

## ARRATIA

# Trikitixa soinuak ermita inguruetan hile osoan zehar

### Erredakzioa

Garagarriean, Arratiako auzune eta ermita ugaritan ospatzen ditue jaiak. Izan be, santomasak, sankristobalak, santamañeak, sansegismundoak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuten dira oingo hilean eta izenpe horreetako ermiten inguruan ez da faltauko trikitixa soinu edo-eta barauskaririk.

Hilaren 3an, santomasak Areatzako Ospitalosten ospatuko dabez 12:00etan mezea eta 20:00etan parriladeagaz. Hilaren 10ean, San Kristobal eguna da eta patriaren jaiak aurreko aste-goienean ospatuko dabe Igorreko izen bereko auzunean.

Lemoako Tallerreta eta Lemorieta eguna, hilaren 14an ospatuko ditue aurreko, oilasko errearen janean, beste gauza ba-

tzuen artean. Ondoren, hilaren erdikaldean, Santa Marina, San Segismundo eta madalenak datoz. Santa Marina edo santamañe eguna 18an da eta Artean eta Dimako Bargondian ospatuten dabe jaiak. San Segismundo eguna, Zeberio Upo auzunean ospatuten dabe. Maria Madalenaren eguna, hilaren 22an da eta astegoi horretan Dimako Lamindaon eta Ubiden ospatuko ditue jaiak. Zeanuriko Ipiñabururen be, hilaren 21ean ospatuko dabez auzuneko jaiak, baita Santiago eta Santa Ana egunak be: mezaostean barauskarria egongo da ermita inguruetan.

Hilaren atzenengo zatian, Santiago eta San Inazio egunak daukaguz, hilaren 25 eta 31n hurrengo hurrengo. Santiagoak Artean, Diman eta Lemoako Arrañon ospatuko dabez. Arrañon,

mezaostean, barauskarria, azkora erakustaldia eta Igel Txapelketea egongo dira.

San Inazio Egunean, Lemoako San Inazio plazan ospatuko dabe lemoaztar guztiak. Izan be, Lemoako jaietako egitarauaren barruan dago. Horrezaz gainera, egun honetan Bizkaia osoan Gorbeara igoteko ohiturea dago eta jaigiroa ez da faltauko inguruan.

### San Kristobal (Igorre) Garagarriak 6, barikua

21:15ean, txupinazoa Akerbeltz taldearen eskutik.

21:30ean, parriladea.

22:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz.

### Garagarriak 7, zapatua

12:00etan, Paella Txapelketarako izen emotea.

15:00etan, paellak aurkeztu.

17:30ean, Tortilla eta Makailo Txapelketetarako izen emotea.

18:30ean, Ibon Magoa.

19:30ean, tortillak aurkeztu.

20:00etan, makailoa aurkeztu.

20:30ean, Arantzarte jantza taldearen emonaldia.

23:00etan, MG taldearen kontzertua eta ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

### Garagarriak 8, domekea

13:00etan, mezea.

13:30ean, azkolariak: Mendieta, Done eta Utxu.

14:15ean, Igel Txapelketea.

### Garagarriak 10, martitzena

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

### Tallerreta eta Lemorieta (Lemoa) Garagarriak 14, zapatua

12:05ean, txupinazoa Tallerretan eta kalejirea auzunetik trikitilariakaz.

15:05ean, bazkaria.

17:05etik 19:05era, umeentzako puzgarria.

17:35ean, bingo musikala.

19:25ean, tortillen aurkezpena eta auzuneko piperreren dastaketea.

19:35ean, Fidel, orkestra gizona.

22:35ean, oilasko erreak.

### Ipiñaburu (Zeanuri) Garagarriak 21, zapatua

12:00etan, txupinazoa.



14:00etan, auzo bazkaria. Izena garagarriaren 15a baino lehen emon 94 631 70 16 edo 660 897 783 telefonon.

19:30ean, txokolata.

### Garagarriak 25, eguaztena Santiago Eguna

11:00etan, meza nagusia eta ondoren barauskarria.

### Garagarriak 25, eguna Santa Ana Eguna

11:00etan, arimen mezea eta ondoren barauskarria.



## ORTUAK

# Ortuak bizi gaitu

Bagileko egun eta gaua epelak naturara bihurtzen gaitue. Atzean lotu dira sasoi hotz eta euritsuak. Eguzkia goi-goian dago, udako solstizioa da. Ortuak beharrak egiteko sasoi be bada.

**Alvaro Rabelli**

"San Juan bagileko, denpora ederreko" dino gure kopla zahar batek udako solstizioaren etorreari gorazarrea eginez. Urteko egun luzeenak, eta beharbada epelenak be bai, aurrean daukaguz. Negu luzearen ostetik natura bizibarritzen da, borborka dago. Benetako bizi leherketea da. Sasoi honek, gainera, natureagaz bat egiten konbidetan gaitu,

basora joaten gara, hondartzara, kalera urteten dogu eguzki izpi eta errainuen bila. Dana bizigarri bihurtzen da. Ezin aitzu, oster, sasoi honek upeleako beharra dakarrala solo eta ortu kontuetan. Oin egitekoak dira beharrik gogorrenak, eta akaso atseginenak be bai, gure lorategi, solo eta ortuetan.

**Ortu bizigarria**

Gaur egun ortu kontu eta behar-

rrak be sano aldatu dira. Lehengo denporetan ortua behar-beharrezkoa zan zer edo zer jango bagenduan. Ezinbestez bizirupenari lotutako bizibidea zan, behar gogor eta neketsua inondik be gure baserritarrentzat. Baina, gure baserritar zaharren ortuen ondoan bestelango ortuak loratu dira aspaldion. Batetik, uritik etorritako ortuzale gazteak daukaguz, berez, baserri munduagaz bape hartu-emonik euki ez dabe-

nak, baina bizimoduz aldatu guran edo ortutik biziteko afanean dabilzanak. Ez dira gitxi horreetakoen artean ortuzale profesional bihurtu diranak. Gure nekazal mundurako itxaropen handia dira. Bestetik, ortua, gehiagorako barik, afizinoz lantzen dabenak daukaguz. Gorantza doan zaletasuna dala esan behar dogu. Izan be, lehengo jubiladu ortuzalearen estereotipoa bertan behera lotu da. Ez dira bakarrik jubiladuak, etxetik kanpo zer edo zer egitearren, ortuetan jarduten dabenak, oin adin eta sexu guztietako jentea lurra atxurka dakusagu. Errazoiak be ugari dira. Batzuek etxean bertan jasotako ohitua dalako egiten dabe, beste batzuek izerdia bota gura dabelako, beste askok errazoi ekologikoak ibiltzen dabelako, janari osasuntsua jan gura dabelako, edota etxeko ekonomiarri lagundu gura deusielako, besteak beste.

**Zoriontsua izateko ortua landu**

Ez dira gitxi, beraz, ortua lantzeak dakarzan onurak. Bizimodu estresatu eta sedentarioan murgilduta dagozanentzat benetako urtenbide bihurtu da. Ez dogu zertan Asia sortaldeko filosofietara jo ortuak zoriontasuna badakarrala jakiteko. Ortuak burua, arimea eta gorputza osatzen deuskuz. Neurri bateko ahalegin fisikoa eskatzeaz gainera, gure zentzumenetarako itzelezko jaija da. Lurra ukututea, usaintzea, momorroen, txoritxuen eta bestelango animalien joan-etorriak mirestea, koloreak eta zapoak gozatzea, klimatologiaren gorabeheren menpe egotea, eta atzen baten, zu zeu lurraren parte zarala sentidutea ezin ordainduzko esperientzia bizigarria da.

**Ez dira gitxi, beraz,**

**ortua lantzeak**

**dakarzan onurak.**

**Bizimodu estresatu eta**

**sedentarioan murgilduta**

**dagozanentzat benetako**

**urtenbide bihurtu da**

Arratia  
Ubide eta zeberiko  
euskerea  
eta kulturearen alde

Hamabostero  
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.  
Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zerri Kultur Elkarteak  
Berrito Plaza 21. 40112 Artea

Izen-abizenak:  
Helbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**



### Zenbat buru, hainbat ortu

Ortua bera lantzeko modua be aldatu da, neurri handi baten gure jateko ohiturak be aldatu diralako. Ez hain aspaldi –oindino batzuek eusten deustie– ohiturea zan ortuariak "zientoka" erein eta landatzea. Zientoka porru, zientoka aza, zientoka dana. Holan, gure ortuak monotono samarrak izaten ziran, eta ortuarien menuak aspergarriak oso. Oin, oster, ortuari bakoxtetik gitxiago erein edo landatzen da, baina askoz bariedade gehiago. Ortuaren globalizazioa da, edo gura badozue, ortu postmoderno. Ortuari barri nahikotxo, batzuk exotikoak, sartu dira gure menuetan, eta horren ondorioz, gure ortuetan bere bai.

Aukeran ortu-lorategia gurago dogu gaur egun, espazio bera konpartitzen dabe lorak, sendabedarrak eta ortuariak. Ortuariak ingurua apaintzen eta edertzen dabela atzera be konturatu gara, eta lorak guztiz onuragarriak izan leitekezala ortuarien zat, berauen gaitzak prebenidu edota osatzeko baliogarriak diralako. Ortuaren tamainaz euki dogun ikuspegia be aldatu da, ez dogu zertan lur handia euki, gaur ortua lora-pote baten egin geinke. Tamaina eta



forma askotako ortuak ugaltu dira: hormetan ipiniak, balkoi eta terrazetan, urietan, udalak itxitako lurretan, eskoletan... Ortuak eskulangintzea be bultzatzen dau,

eskuz egindako lanabesak eta apainketa kontuak lehenesten dira, eta batez be birziklatutako gauza asko; holan ortuak, natur baliabideak, tokiko ekonomiak eta

usadioak, eta birziklaketeak osotzen daben zirkulua zarratuten da.

### Bagilean zer egin

"Solo eta gari gorde", "apo eta

suge, badagoz be, erre" jarraitzen dau esaten gure hasikerako koplak zaharrak sasoi honetan zer egin iradokita. Esan lez, oin lanik gogorrena egin behar da gure ortuan. Udan eta udagoiengan batuko doguna erein eta landatu behar da. Gainera dana jagon behar da. Azea, koniflora, arbia, bruselazea, brokolia, artoa, erromaneskua, perrexila, azenarioa, indaba, leka, letxugea, errefaua, errekualea, eskarolea, erremolatxa, idarra, apioa, ziazarbea, zerbea, tomatea, porrua, piperra, alberjina, pepinoa, kalabazea, kuitaxoa eta abar, eta abar landatu eta erein geinkez. Udako inusketea be egin leiteke fruta-arboletan eta atzen aukerea da lurra behar dan lez ongarrizkeko. Pataten uztea bidean daukagu, baina patata-landaren inguruan lurra jorratu behar da. Eta batez be, jagon, udabarriko umedadeak gaitzak ekarriko dauz eta. Horretarako tratamendu ekologikoak egin geinkez, gurean ugariak diran asunaz eta azeribustanaz prestatutako urakinakaz esaterako. Eta gogaikarriena be egin, bedarra, ona zein txarra garbitu. Gure gerriak eta desbrozadoreak badakie.

**amalur**  
baso eta lorategia

- Pentsuak, lorak, landarak, fitosanitarioak, oiloak, orturako edo lorategirako edozein gauza saltzean dogu
- Egin zure eskaerak WhatsApp bidez

**Agrovec** **Unamuno**



Jabier Petralanda Olibares  
Igorreko Industrialdea B4-1 pabilioia  
48140 IGORRE  
94 673 69 81 / 650 273 981

**Husqvarna**

- Makinen konponketak egiteko tailerra daukagu



publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)





PITCH AND PUTT



Pitch and putt txapelketan parte hartu ebenak.

# Kepa Ikuza dimoztarra Europako Pitch and Putt Txapelketan egon da Euskadiko Selekzinoagaz

Bagilaren 23 eta 24an, Urduñako golf zelaian Europako Pitch and Putt Txapelketa bat jokatu zan.

**Erredakzioa**

Bertan 9 selekzinok hartu eben parte, tartean Euskadikoak. Selekzinoko golf jokalarietako bat Kepa Ikuza dimoztarra da. Irlandako selekzinoak irabazi eban txapelketa, eta Kataluniakoak

eta Andorrakoak osotu eben podiuma. Euskadikoa zortzigarren geratu zan.

Txapelketan, Euskadi, Irlanda, Katalunia eta Andorrako selekzinoez gainera, Frantzia, Galiza, Britania Handia, Norvegia eta Suitzakoak lehiatu ziran. Talde

bakotxean sei jokalaria egon ziran. Euskadiko Selekzinoa, dimoztarrrak, Usansoloko batek, Gasteizko beste batek eta hiru gipuzkoarrek osotu eben.

**Pitch and putt**

Pitch and putt golf modalidadea ez da oso ezaguna gurean. Hamazortzi zuloetan sartu behar da pelotea eta golf-agaz daukan desbardintasun handiena, zuloen arteko distantzia da. Zuloen arteko gehieneko distantzia "90 metrokoa da. Pelotea hiru golpetan sartu behar da. Presizinozko kirola da" azaldu deutso BEGITURI Ikuzak. Distantziak laburragoak izateak erosoago egiten dauan arren, gurean nahiko ezezaguna izaten jarraituten dau pitch and putt-ak.

MENDIA

# Zeanuriko mugetatik egun biko ibilaldia antolatu dabe

**Erredakzioa**

Herri zabala da Zeanuri, 67 kilometro karratuko azalera dauka eta herriko mugetatik ibilbidea egiteko egun bi behar dira. Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatu dau ibilbidea, garagarilaren 21 eta 22rako. Ibiltariak 25 kilometro inguru egingo dabe eguneko, sei bat ordu oinez.

Goizeko 09:00etan Barazarretik urten eta lehenengo eguneko ibilbidea, Altun, Urrekoatxa, Asterrria, Karpo, eta Uribetik pasauko

da Arraban amaituteko. Arrabako aterpean egingo dabe lo partaideak eta hurrengo egunean, Gorbaiako kurutzera igon, eta Azero eta Ubidetik pasau ostean, Barazarren amaituko dabe ibilaldia. Asmoa eguerdirako amaitutea da eta Barazarren bertan bazkaltzea.

**Izen emotea**

Izena garagarilaren 8a baino lehen emon behar da udaletxean. Prezioa 65 euro dira personako, eta bertan, afaria, loa, armozua eta bazkaria dagoz.



**Olaetxe**  
OPTICA CENTRAL

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkai)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**Abel Lapatza Iza**

Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

**Kili-Kili**  
Anpas eta Puntukoak

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkai)  
Tel.: 94 673 63 31

**BICIS CAS**

Arratiarron dendea

**JESUS CANAS TARAVILLO**  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

**BICISOBIZI**  
www.bicisobizita.com - AMOREBETA-ETXANIO

Zugaitik BEGITuten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

**INMOBILIARIA**

Tfnoa: 94 631 80 04

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPERA

Elxalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkai)  
Tel. 94 631 64 62 - 906 854 618

**www.ortika.com**

Arreta gutxiarik  
-Laputa pikoak/latxa  
-Laguntza  
-Fisioterapia  
-Pukuntzaratas  
-Jarrera arrotak  
eta askoz gehiago

**izkaifisios**

**IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA**  
Elxalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@bizkaifisios.com

**ANDRA MARI KLINIKA**  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@bizkaifisios.com

**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzari elikagaiak  
estefiziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**Orre**

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 3  
48140 Igorre (Bizkai) Tfnoa: 94 673 63 75

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAI

**NAIARA HORTZ KLINIKA**

Lehendakari Agirre, 10  
48140 Igorre  
94 631 52 26



## ONE WALL

# Mikel Beldarrain eta Egoitz Amantegik irabazi dabe Gipuzkoako One Wall Irekia

### Erredakzinoa

Sano final arratiarra izan eban Gipuzkoako Irekiak, Beldarrain eta Amantegik, Ekhi eta Lur Ziarrusta dimoztarren kontra jokatu ebena. Euskal Herri osoko pelotariak hartu eben parte, baina finalean 3 arratiar egon ziran, modalidade honetan arratiarren maisutasuna erakutsiz. Finala, bagilaren 17an jokatu zan Zumaian.

Finala estua izan zan. Ziarrusta anaiak lehenengo seta irabazi eben 11-9; bigarrena Amantegi eta Beldarrainek 9-11 eta desenpatea Abadino eta Arteakoa jokalariaentzat



Txapeldunak eta txapeldunordeak Zumaian.

izan zan 5-1 irabazitako setari esker. Amantegi eta Beldarrainek Biz-

kaiko One Wall Irekia be irabazi eben Matienan maitzean.

## PELOTEA

# Bizkaia Torneoaren gizonezkoen finalaurreko bat Zeanurin izango da

### Erredakzinoa

Esku pelotako Bizkaia Torneoaren gizonezkoen zazpigarren edizioa eta andrazkoen lehenengoa da. Gizonezkoen finalaurreko bat, Zeanurin jokatu da garagarriaren 29an 17:00etan. Finala abuztuaren 21ean izango da Bizkaia

frontoian.

Gizonezkoen Bizkaia Torneo taldeka jokatuten dan torneo bakarra da. Hogeta lau pelotarik jokatu dabe, tartean, Altuna III, Elezkano II, Rezusta, Urrutikoetxea, Bengoetxea VI, Iribarria eta Olaizola II. Pelotariak mendien izenak daukien sei taldetan

bananduko dira. Binaka neurtuko dira Bizkaia Torneoan.

Torneoa bost udalerrietan jokatuko da; Arrigorriagan, Etxebarrin, Barakaldon, Zeanurin eta Bilbon.

### Andrazkoak udagoienean

Andra pelotarien arteko lehiaketea urri bigarrenaren 27an hasiko da. Pala eta eskuzko modalidadeak egongo dira eta Bilboko Bizkaia frontoian jokatuko dira partidu guztiak.

Finala zementiaren 17an izango da.

## LASTO ALTXATZEA

# Jon Loiola dimoztarra txapeldunorde Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketan

### Erredakzinoa

Herriko jaietako egunik handienean, bagilaren 29an, jokatu zan Diman Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea. Jon Loiolak ezin izan eban igaz lez txapela bereganatu eta bigarren egin eban. Hiru parte

hartzaile baino ez ziran aurkeztu txapelketara eta Beñat Amade Algortakoa izan zan txapeldun 22 altxaldi eginda. Bigarren egin eban Loiolak 21 bider fardoa altxauta minutu bitan eta Xabat Erleaga arrazuarra izan zan hirugarrena 10 altxaldi eginda.



Jon Loiola eta Ibon Iza zinegotzia sari banaketan.

Argazkia: Ibone Barrenetxea.

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa Bilboko Portu Autonomoan



Dirabizko Harri Irastetxeak

**Gure**  
irastetxeak

Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## JANTZEA

## IV. Dantza Topaketak antolatu ditu Arantzarte jantza taldeak oingo udan



Poloniako Kostrzanie jantza taldea.

Laugarren aldia da Arantzarte Igorreko jantza taldeak, beste herrialdeetako folklore jantza taldeak ekarri eta topaketak antolatuten dituana. Aurrekoa 2009an izan zan. Topaketak, garagarilaren 12tik 18ra izango dira.

## Erredakzioa

Poloniako Kostrzanie taldeak, Kolonbiako Creadanza taldeak eta Arantzartek jantzan egingo dabe Igorren, Diman, Arantzazun, Ubiden, Markinan, Orozkon eta Usurbilen.

Aurtengo jantza topaketak hemen egiteak poloniarrai zor deutsee Arratiakoak. "Gu udan, jaialdietara joaten gara eta igaz Polonian egon ginan. Poloniakoak ipini euskuen baldintza izan zan, gero eurak hona etortea. Horregaitik, aurten kanpora joan beharrean, jaialdia hemen antolatutea ebatzi genduan" azaldu deutsee BEGITURI Arantzarteko kideak.

## Jantza topaketak

Eguraldiak lagunduten badau, plaza eta kaleetan egingo dabe jantzan. Lehenengo egunean, hilak 12, Igorren egingo dabe emo-

naldia arrastiko 20:00etan. Talde bakotzak, 20 minutuko saioa egingo dau bere herriko jantzak erakusteko. "Guk danerik egingo dogu. Ez doguz jantzak modu tradizionalen erakusten, montajeak egiten doguz. Jantza oso bat egin beharrean, jantza batzuk aukeratu eta lotu egiten doguz" dinoe Arantzartekoak.

Aspaldi honetan, herrialde askotan barriztu dabez folklore jantzak publikoa erakarteko. Talde batzuek montajeak egiten ditue, beste batzuek tresna musika barriak sartu... Gehienetan jantzak erakusteko modua barriztu dabe.

Diman, hurrengo egunean, hilak 13, arrastiko 19:00etan egongo dira Arantzartekoak eta Dantza Topaketetara etorritako Polonia eta Kolonbiako jantzariak. Garagarilaren 14an, Arantzazun egongo dira goizean 12:00etan eta arrastian, Ubiden 18:30ean.



Kolonbiako Creadanza jantza taldea.

## NOBELA GRAFIKOA

## Igor Estankona: "Sirian dagoz oin, Yemenen, Gazan... Blasida Pujanak"

## Erredakzioa

Igorreko 1937ko bonbardaketan hil zan Blasida Pujana. Igorreko memoria historikoa berreskuratzeko lanen barruan, Maite Yurrebaso Igorreko irudigileak eta Igor Estankona Arteako idazleak bere historian oinarritutako komiki edo nobela grafikoa egiteko enkargua jaso eben. Emaizta sano ederra izan da.

Igor Estankonak azaldu deutzaz BEGITURI liburuaren sorkuntzaren nondik norakoak.

## Maite Yurrebaso marrazkigileagaz batera egindako Nork hil zuen egiazki Blasida Pujana? liburua kaleratu dozu ointsu. Liburu dendetan dago?

Ez, ez dago liburu dendetan. Igorreko Udalak herriari eta herriaren memoriari egindako opari bat izan da eta, bide batez, Maitek eta nik jaso dogu oparirik handiena: lan bat garatzea 1937an Igorren —eta Arratia osoan— egin zan sarraskia salatzeke, hilak gogoratzeko, burukatu ziranak ohoratzeke.

## Zelan definiduko zeunke? Komikia, nobela grafikoa...? Poesia ez dan zure lehenengo liburua da hau?

Maiterentzat zein niretzat lehenengo komikia edo nobela grafikoa izan da, eta ia-ia modu instintiboan jokatu dogu. Maite doguzan komikien antza eukiko eban lan bat egin dogu, marrazkilari handien trazak jarraitu doguz. Gurea *opera prima* da, baina an-

bizinoagaz egindakoa.

## Zelan sortu zan liburu hau egiteko idea?

Beinat Anzola Igorreko alkateak deitu eustan, 1936ko gerrako memoriaren lanketak hanketako bat euki behar ebala hauxe esanez, eta ea gidoia egingo neban. Yurrebasoren eskua eta nire trama! Ezinezkoa ezetza emotea!

## Zu Tolosaldean bizi zara eta Maite Yurrebaso Madrilen. Zelan izan da alkarregaz lan egitea?

Maite Yurrebasoren koadro bat daukagu etxeko salan, Tolosan. Nire seme-alabai asko gustetan jakie, euria da botalean andamio batzuetatik behera. *Iratzeen esporak* poemategiaren azala be berak egin eustan. Maitegaz behar egitea erraza da ze entzuten daki. Nik emaila botaten neutsan: "Maite, hegazkin italiarrak izan behar dira halakoak eta halakoak... eta personajea imajinetan dot buruzuria... eta hau pintauko neuke baltzez..." eta gero Maitek, diplomatikoki, dana

aldatuten eban. Eskerrak. Komiki itzela urten da, bakotxa berera dedikauta.

## Nor izan zan Blasida Pujana? Zergaitik da berezia bere historia?

Blasida Pujana ez da berezia. Horregaitik hautatu neban bera. 15 urtegaz hil eben, faxistak. Bargondiakoa zan, Igorren krida egoan, metrailau egin eben airetik. Korrienteagoa ezin lei izan: Sirian dagoz oin, Yemenen, Gazan... Blasida Pujanak.

## Igorreko memoria historikoari lotutako beste materialik argitaratu da?

Erakusketa itzel bat egin zan Igorren. Angel Larreak, Ibai Pujanak eta Ekain Pujanak bildu eben informazio guztia. Hori betiko geratuko da, sakondu gura dauarenentzat.

## Literaturari lotutako zeintzuk dira zure hurrengo lanak?

Poema liburu bat akabetan-akabetan nabil azken zortzi urteokaz. Ez ete dira beste zortzi pasauko zuk galdera bera egin orduko!



## KAROBIA

## Informazio panel barria ipini dabe San Justoko karobian

## Erredakzioa

Panel horretan, QR kode baten bidez, bideo baten karearen fabrikazio prozesua ikusi daiteke eskuko telefonoan. Panela Gorbeia Gune Turistikoak ipini dau. Tradizinoak berreskuratzeko eta balioan ipinteko proiektuaren barruan dago eta aurrera eroan ahal izan da Ipizki Taldea, Zeanuriko Udala eta Otzerimendi Kofradiaren laguntzeari esker.

Abuztuaren lehenengo aste-egonean, San Juston erromeria egiten dabe. Hainbat urtetan, labea biztu eta karea egin izan dabe hurreratutako jentek zuzenean

ikusi ahal izateko karea zelan egiten zan. Oin, barriro be posible izango da fabrikazio prozesua ikustea, bideo baten, karobiaren ondoan ipini dan informazio panelaren bidez.

## Karobia

San Justoko karobia Gorbeian funtzionamentuan geratzen diran atzenetako bat da. Haresti baten erdian dago, Justo eta Pastor santuen omenezko ermitearen ondoan. Frantses erako labea da, eta lursailleko ezponda baten egin da dago. 1950. urtearen inguruan karearen industriak baztertu egin

ebazan labe tradizionalak, baina oin dala 22 urte, San Justoko karobia barriro ipini eban martxan Ipizki Taldeak, Juan Aranaren zuzendaritzapean. Arana izan zan bertan karea egin ebaneko karegile bat.





## AUZOLANDEGIAK

# Arkeologia ikasleak lubakien ondare balioa dokumentaiko dabe Aranzadiren gidaritzapean



Lemoatxen errekuerautako lubaki bat.

### Erredakzioa

Oingo udan seigarrenez, mundu zabaletik etorritako gazteak 1937ko Lemoatxeko batailako lubakiak lehengoratu eta mantenduteko lanak egingo dabez. Betiko lez txanda bi izango dira; lehenengo taldea garagarilaren 16an helduko da eta bigarrena 30ean. Baina aurten, lehenengoz, abuztuaren 13tik 22ra, Lemoatxeko defentsa sistemearen ipar ekialdeko lubaki zati baten esku hartze arkeologikoa egiteko, Aranzadik Arkeologia, Historia eta antzeko ikasketetako ikasleakaz, beste auzolandegi bat gidatuko dau, helburu espezifikoa.

Kanpaina honen helburu nagusia "jarduerari metodologia arkeologikoa ekitea da. Honek ahalbideratuko dau, aztarnategia bere osotasunean ulertutea; baita gatazkan gertatutako pro-

zesuak eta ondorengo ixtea eta betetzea be. Zeregin nagusia izango da lubaki linea bat dokumentatzea; baita beste jarduerak batzuk be, prospekzioen bidez, sistemearen egiturea identifikatzea, esate baterako" azaldu deustxo BEGITURI Alba Peña Aranzadiko arkeologoak.

### Balio arkeologikoko ondarea

Defentsa sistemeak potentzia arkeologikoa handi eta interesgarria daukara dino Peñak. Hainbeste urtetan, hainbeste informazio batu ondoren, informazio honek ikuspegi arkeologikoa emoteko momentua heldu da, "ezpabere, galdu egingo litzateke". Holan inguruaz azaldu eta testuinguruaz emotez gainera, "daukan ondare balioa sendotu leikegu, Lemoako Udalak hasikeratik eskatu eban legez" arkeologoaren esanetan.

## DUNBA

# Urruzunotarrak Gehituz Literatura Lehiaketan saridun Maddi Zabalo

### Arratia BHI

Arratia BHIko ikasle dan Maddi Zabalo zeberioztarraren lana saritu dabe Urruzunotarrak Gehituz Literatura Lehiaketan. Igaz, poesiako kategorian aurkeztu eban lana eta aurten prosan egin dau. Azken honen saria jaso dau aurten. Hona, bere lanaren hasikerea:

### Loreak udazkenean

Azken berrogei urteetan egin dudun modura, gaur ere loreak jarri ditut sarrerako mahaian, badaezpada ere. Horrela, bueltatzen zarenean, egongela joan zinen bezala ikusiko duzu.

Orain dela lau hamarkada joan zinen, eta inoiz ez zinen itzuli, baina jakin ezazu etxea

## FOLKLORE BIZIAN

# Ipar Osetia eta Ruandako jantzak Areatzan

### Erredakzioa

Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantza Taldeak antolatuta, atzen hiru urteotan Areatzara ekarri dau jaialdia Udalak. Folklore Bizian jaialdia, nazioarteko kultura topaketea da eta munduko hainbat jantza eta musika talde ekarten dauz Euskal Herrira, euren ondarea eta ohiturak ezetu dagiguzan. Areatzaz gainera, Galdakaon, Usansolon eta Arrigorriagan be izango dira Ipar Osetia, Ruanda eta Galdakaoko jantza taldeak.

Andra Mari Eusko Dantzari Taldea 1955ean sortu zan eta 1970eko hamarkadan, Euskal Herriko musika eta jantza zaharren ikerketa, ikasketa eta berreskuratze lanari ekin eutsan.

### Ipar Osetiako Gorest taldea

Osetia, Georgia eta Txetxenia artean dago eta 700.000 biztanle ditu. Gorest alkarte folklorikoaren jantzak, "beroa eta hotza nahasten ditue, maitasuna eta indarkeria" eta hori ez bakarrik jantzetan, euren jantzietan be ikusi daiteke. Baita erabiliten daben musikan be. Izan be, jantza batzuk tanborren musikeagaz lagunduten dabez, beste batzuk osterak, akordeoi eta balalaikakaz.

### Ruandako Inyamibwa taldea

Jantzak beti dira Ruandako kulturearen parte garrantzitsua. Hango jantzak ez dira ederrak bakarrik, esanguratsua be badira eta Ruandako kulturearen benetako espilu.

Inyamibwa alkarte folklorikoa, 1998an sortu zan, artearen eta tradizio herrikoien bitartez, Ruandako kultura eta etnia desbardinaren arteko bakea eta armonia sustatzeko helburuagaz.

Folklore Bizianen barruan, Ipar Osetiako Gorest, Ruandako Inyamibwa eta Galdakaoko Andra Marik, Areatzako plazan egingo dabe jantzan, hilaren 22an, 20:30ean.



Gorest taldea.



Inyamibwa taldea.

Lurralde hau zein aberatsa dan eta aldi berean zein mingarria

kontetan deusku Inyamibwa-k bere jantzakaz.


berdin dagoela, pintura kaparen bat tarteko. Nire limoi-koloniaren betiko usain berbera du.

Kolonia ere ez dut aldatu. Egutero botatzen dut apur bat, zorte apur batekin egun horretan etorriko zarela, eta berriz ere dena berdina izango delakoan.

Baliteke aldatu den bakarra ni izatea. Urteek ez dute ezer barkatzen, badakizu, eta lauogeita bostgarren urtea aldean izateak ez dizkit gauzak errazten, baina etxeko lanak egiteko eta noizean behin herrira jaisteko indarrik dudun artean, nahikoa da.

Nola ez, memoria ere galtzen ari naiz, baina zure masail gorriekin ederki gogoratzen naiz. Oraindik egiten dut irribarre

esku hotzak bizkarretik sartzen nizkizunekoak oroitzean, edo beti bezain arin eta ozen hitz egiten zenuenean txundituta gelditzen nintzela. Argi dago kanpotik beste bat naizela, normala denez, baina betiko



Maddi Zabalo.

berdina, berez, memoriek egiten baikaituzte gu, zati handi batean.

Askok zorotzat naukate. Arrazoi puntu bat badaukate, egia da. Izan ere, urteak daramatzat oroitzen eta argazki multzo batekin ezkondu, baina, adin honetara helduta, zeregin hoberik ez daukat gaztaroko maitasun istorioak gogoratzea baino...





## AGENDEA

GARAGARRILAK 2  
AREATZA

Hilaren 6ra arte, udal udaleku irekiak.

## BEDIA

Bediako Udak antolatutako Txiki Txoko eta udaleku irekiak.

## IGORRE

17:30etik 20:30era, hilaren 27ra arte, astelehenerik barikura, udalekuetako berdegunean "Parkean jolasean".

## LEMOA

Hilaren 13ra arte, jaietako kuadrillen afarirako (hilak 27) eta herri bazkarirako (hilak 28) txartelak eskuragarri udaletxean.

## ZEBERIO

Hilaren 13ra arte, udal udalekuak.

GARAGARRILAK 3  
AREATZA

Santo Tomas. 12:00etan, mezea eta 20:00etan, parriladea Ospitalosten.

## IGORRE

19:00etan, Igorreko Gazteleku berrantolatzeko prozesu parte hartzaileko batzarrak. LH 5. eta 6. mailakoak, Goloski ondoko errugbi zelaian; DBH 1. eta 2. mailakoak, Goloski aurreko zelaian, Gazteleku aurrean eta DBH 3. eta 4. mailakoak, Institutuaren aurrean.

GARAGARRILAK 6  
IGORRE

Jaiak San Kristobal auzunean. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

GARAGARRILAK 7  
BEDIA

Eleizalde Bediako Jubiladu eta Pensionistak antolatutako urtekerea Lizarrara (Nafarroa).

GARAGARRILAK 8  
ARTEA

13:30ean, Zarzaparrilla taldearen kontzertua Herriko Bentan.

## ZEANURI

Zeanuriko mugetatik ibilaldirako izena emoteko atzen eguna udaletxean.

GARAGARRILAK 9  
DIMA


Hilaren 13ra arte, udal udaleku irekiak herrian.

## IGORRE

19:00etan, Igorreko Gazteleku berrantolatzeko prozesu parte hartzaileko batzarrak. LH 5. eta 6. mailakoak, Goloski ondoko errugbi zelaian;

DBH 1. eta 2. mailakoak, Goloski aurreko zelaian, Gazteleku aurrean eta DBH 3. eta 4. mailakoak, Institutuaren aurrean.

Uda maritzen. 17:00etan, ur ginkanea; 19:00etan, Igorreko Gazteleku berrantolatzeko prozesu parte hartzaileko batzarrak. Ekintzak Goiko Plazan izango dira, euria egin ezker aterpean. LH

Andoni Martinez de Usaran mago  
argentinarraren ikuskizuna LemoanJai egitarauaren barruan, garagarriaren 29an, 18:30ean, Argentinatik etorritako Andoni Martinez de Usaran magoak *DesEquilibrado* ikuskizuna eskeiniko dau txosnagunean.

"DesEquilibradok bariedade ikuskizuna izan gura dau. Magia da ardatz nagusia eta zirku trazak eta musika pintzelkadak ditu. Esperimentu bat da, bilaketa bat eta bertan batzean dira Andonik ibilitako bide guztiak. Umorea presente dago show osoan eta publikoagazko hartu-emona kaxoa da, zoramen, oreka eta desoreka buruhausgarri hau osotuteko" azaldu deutso BEGITURI magoak.

6., DBH 1. eta DBH 2. mailakoak zuzenduta. 688 898 765 eta [maratu.igorre@gmail.com](mailto:maratu.igorre@gmail.com).GARAGARRILAK 10  
IGORRE

Uda maritzen. 19:00etan, eskulanak (egurrezko muebleak); 21:00etan, afaria; 22:00etan, pelikulea ludotekan. Ekintzak Goiko Plazan izango dira, euria egin ezker aterpean.

GARAGARRILAK 11  
IGORRE

Uda maritzen. 17:00etan, jai erraldoia, zezen mekanika, granizatuak, jolasak, merendolea eta askoz gehiago. Ekintzak Goiko Plazan izango dira, euria egin ezker aterpean.

GARAGARRILAK 12  
IGORRE

20:00etan, Arantzartek antolatutako IV. Dantza Topaketak. Jantza emonaldia.

GARAGARRILAK 13  
DIMA

19:00etan, Arantzartek antolatutako IV. Dantza Topaketak. Jantza emonaldia.

GARAGARRILAK 14  
ARANTZAZU

12:00etan, Arantzartek antolatutako IV. Dantza Topaketak. Jantza emonaldia.

## LEMOA

Tallerreta eta Lemoretako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

## UBIDE

18:30ean, Arantzartek antolatutako IV. Dantza Topaketak. Jantza emonaldia.

GARAGARRILAK 15  
BEDIA

Hilaren 22ra arte, Udak antolatutako Uda Gaztea bijsa.

## ZEANURI

Ipiñaburuko jaietako bazkarian izena emoteko atzen eguna. 94 631 70 16 edo 660 897 783 telefonoan.

GARAGARRILAK 16  
BEDIA

Hilaren 27ra arte, udako ludoteketa: "Ludosport" ingelesez.

## DIMA

Hilaren 20ra arte, udal udaleku irekiak. Astea kanpoan.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara, ludoteka ibiltaria garagarriaren.

GARAGARRILAK 20  
LEMOA

Hilaren 22ra arte, Ganzabalen Pirinioetara urtekerea. Arnales (3.002 m.)-Brazato (2.731 m.).

GARAGARRILAK 21  
ZEANURI

Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatuta, Zeanuriko mugetatik egun biko ibaldia.

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, txupinazoa; 14:00etan, auzo bazkaria; 19:30ean, txokolata.

GARAGARRILAK 22  
AREATZA

20:30ean, Folklore Bizian jaialdia plazan. Ipar Osetia, Ruanda eta Euskal Herriko jantza taldeak.

GARAGARRILAK 23  
DIMA

Hilaren 27ra arte, Dimesten eta Udak antolatuta, Gazte Abentura.

## IGORRE

10:00etatik 14:00etara, Beharbide, orientazio saioa Kultur Etxean.

GARAGARRILAK 25  
LEMOA

Arriñoko jaiak. 12:00etan, mezea ermitan; ondoren, barauskarria, azkora erakustaldia eta Igel Txapelketa.

## ZEANURI

11:00etan, mezea Ipiñaburuko eta ondoren barauskarria.

GARAGARRILAK 26  
LEMOA

Lemoako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## ZEANURI

11:00etan, arimen mezea Ipiñaburuko eta ondoren barauskarria.

GARAGARRILAK 29  
ZEANURI

17:00etan, buruz-buru, binaka eta lau t'erdiko pelota finalaurrekoak frontoian. Bizkaia VII. Torneoa 2018.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herriko oso hur. 685 717 504 (Garazi).

## AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

## DANERIK

## ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Tabernan zerbitzaria behar da astegoienetarako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

## GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren

29ra. Interesdunak idatzi [ugerka2@hotmail.com](mailto:ugerka2@hotmail.com) helbide elektronikora.

## ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

## ESKOLA PARTIKULARRAK

3. DBH egitera doan Igorreko mutil batentzako persona bat behar da euskera, gaztelania eta ingeles ikasgaietan laguntzeko. Astean 3 ordu, urri lehenengoan hasita. Interesdunak [estilanipa@gmail.com](mailto:estilanipa@gmail.com) helbidera idatzi.Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Kimetz Intxaurraga (Zeanuri)  
Alex Agirre (Areatza)Zerturen  
argitalpenak  
jasoko dozuz,zozketetan  
sartuko zara.


BEGITUK 16

urte eta  
ehundaka  
lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Taldea. 2.- Hamar erromatar.  
Alper. 3.- Arsenikoa. Nori atzizkia.  
Bokala. 4.- Tik... erlojuaren  
hotsa. Burukeria. 5.- Amaiera.  
6.- Matematikan, limitearen  
sinboloa. Naiz. 7.- Bokala. Arbuiozko  
interjezinoa. Andrai dei egiteko  
hotsa. 8.- Apatz. Letra bat.  
9.- Katigatu.

### GOITIK BEHERA

1.- Zatia. Letra bat. 2.- Konsonantea.  
Koska. Emea ez dana. 3.- Zintzo.  
Goitegia. 4.- (Atz.) Musika mota  
bat. Boroa. Bibliako personajea.  
5.- Ekintza. Musika nota. 6.- Litoia.  
Elorri. Letra bat. 7.- Bokala. Arduratu.



Topau antxinako erromatarren zazpi izen.

S	A	T	U	R	B	I	O	L	E
O	L	M	I	D	O	R	E	S	A
L	A	O	I	R	E	B	I	T	D
I	M	A	N	O	L	A	I	X	A
G	I	A	N	I	N	T	O	R	V
U	D	E	R	K	O	K	H	E	I
S	O	K	A	C	A	R	V	I	O
T	I	O	L	A	O	Z	I	C	L
A	L	L	U	C	I	O	T	G	A
B	B	I	B	I	L	A	T	O	R
I	U	Z	T	A	V	I	O	M	E
M	P	O	R	I	C	U	K	A	T
E	N	B	O	F	C	A	Y	O	H
R	Z	E	R	A	G	U	K	O	L
T	D	A	B	I	T	E	R	A	Z



umean moda  
**sema**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutejateetxea@hotmail.com

*Pinturas Artia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten  
dogu Bizarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



## MAITE ALDEKOA BERROJALBIZ

# "Umeen enpatia garatu behar da"

Maite Aldekoa psikologo igorreztarrak hamabi urte daroaz umeakaz beharrean, adimen emozionala eta trebetasun sozialak landuten, hain zuzen be. Arratian horreek landuteko beharrizan handia dagoala eretxita, arazoai modu globalean, logopeda eta fisioterapeuta batez urtenbide bat emoteko, urrietan zentro bat zabalduko dau Igorren.

Familia nuklearrean eta amatasunaren exigentziak muturretara eroan diran honetan, gurasoak bakarrik eta noraezean sentiduten dira askotan, eta umeai mugak ipinten lagundutako familiak profesionalen erispideak behar dituela uste dau Aldekoak, eskolegaz eta pediatreagaz lankidetzan.

Gaurko gizarteak umeen heziketan planteetan dituan arazoan gainean egin dau berba BEGITUGAZ.

### Erredakzinoa

#### Zeintzuk dira somatu dozezan umeen beharrizan handienak?

Gehienbat familiagaz egin beharreko lana. Familien aldetik oindino badago psikoloarenganako bildur apur bat. Baina askotan gurasoak ez dakie zer egin behar dan jarkera batzukaz. Psikoloarengana joteko, jarkereak muga batzuk gainditu behar dituala emoten dau, oso txarto egon behar dala umea, gurasoak pautak batzuk behar izateko.

Baina askotan ez dakie umearen amorrualdi baten aurrean zer egin. Eguneroko dinamikeak dudak sortuten ditu. Umearen jarkereak ez dauka zertan kritikoa edo larria izan gurasoak dudak izateko eta hor lagundu leikegu profesionalok. **Umeak gurasoak eroanda joango dira psikologoarengana, baina zer gertatzen da gurasoak diranean arazoa? Tratu txarren kasuetan, esaterako.**

Bide desbardinatetik etorten dira guregana. Umeak etorten jakuz gurasoakaz, baina etorri ahal dira

eskolatik, Umeen Psikiatria Unidatetik, edo gizarte zerbitzuetatik. Gurasoen tratu txarrak dirala eta, gehienak eskolatik bideratuta etorriko dira, ze eskolan emoten dabe umeak denpora gehiena eta han antzeman daikie zeozer gertatzen dala. Nik uste dot eskolea dala gure laguntzaile potenteentarikoa.

#### Horrek eskolegaz edo-eta psikiatra eta pediatreagaz alkarlana eskatzen dau.

Gure esku-hartzea izango litzateke umeakanako interbenzinoa eta familiari be pautak emotea, kontestu desbardinakaz koordinatuta: pediatreagaz, eskolegaz... eta baldin badago beste profesionalen bat, haregaz be bai. Ekipo bat egin behar da, talde profesional bat, ahal danik eta erantzun one-na emoteko.

Gure ideologia globala da. Eremu guztiak ikutuko doguz: logopedia, fisio... Eta psikologiatik arlo desbardinak landuko doguz: inteligentzia emozionala, abilitade sozialak, bullying-a, laguntza psiko-educatiboa...

#### Umeen kontrako indarkeria mota eta kasu asko dagoz?

Gero eta gehiago eta gero eta adin txikiagoetatik somatzen dira. Askotan esaten dogu umeak gaiztoak dirala, baina gizartearen islada da hori. Egia da indar desbardinak dagozala gizartea hobetuteko baita gazteen eta umeen inguruan be.

Askotan umeak arazoak badaukaz, gurasoai pautak emon behar jakiez. Gugana datozen ume askok arazoak izaten ditue, handiagoak eta txikiagoak. Batzuetan arazoa da lotsatia dala eta hartu-emonetan zailtasunak daukazala. Arazoak txikia emon arren, atzean burla egiten deusiela eskolan egon daiteke. Niri emoten deusta sensazioa arlo horretan txarrentza joan garala. Lehen danak jolasten eben danakaz, bardin da antiejuak euki, lodiagoa izan edo

galapan txarto egin. Oin, umeak exigenteagoak dira eta nik uste dot guk horretan badaukagula erantzukizun bat. Danon lana da, gurasoena eta profesionalena. Eskola eta kontestu guztietan jarkera horreek murrizten joan behar gara. Trebetasun sozialak eta adimen emozionala hobetuteko lan egin behar dogu, kontestu guztietan. Umeen enpatia, besteen lekuen jartzea, garatu behar da.

#### Ze leku dauka matxismoak umeen arazoetan?

Gero eta handiagoa. Umeak gero eta gazteago eurengean dabez genero estereotipoak. Nik ikusi dot hiru urteko umea esaten, ez daua la gauza bat arrosa kolorez margotuko bera ez dalako neska bat. Niri pena handia emoten deusta egoera horrek.

#### Gizarte hau umezentrista da? Amatasuna muturrera eroan da, amak ez dagoz orain umeen zerbitzura?

Oreka lortzea sano gatxa da, aldagai asko dagoz jokoan. Baina bai, ikusten dogu hori: gauza batzuetarako umeak erantzukizun lar daukiez, ebatzi lar hartu ahal dabez. Gauza batzuetan ez dau ardura eta umeak hartu ahal dau

ebatzia: txupatxusa mallukizkoa ala Coca-Colazkoa izango dan, berbarako. Umeak hori aukeratu ahal dau. Baina umeak ezin dabez gauza batzuk ebatzi. Nik ikusi dot hiru urteko ume bat amari esaten "ama zu hemen geratuko zara jesarrita, ni etorri arte" eta ama jesarrita geratu umea etorri arte. Hori tirania da. Horreek gauzok ezin dira permitidu. Muga bat ipini behar da hor. Arau argiak behar dira.

Umeak mugak eta arau argiak behar ditu konfiantza eta seguridadea eukiteko. Atzenean, umeak txikitan eukiten dabez kasketaldiak topau behar dabelako nor diran, amarengandik desbardinatasuna topatzeko. Baina danok jakin behar dogu kontestu bakotxean zer eskatzen jakun eta zer espero dan gugandik. Mugak ipini behar dira, ezpabere ondorioak larriak izan daitekez.

Baina beste alde batetik be bai, exigentzia larregizkoa izan daiteke. Ikusten dogu askotan umeak daukala erantzukizun bat eda-degaitik ez jakona toketan. Eta horrek eroan ahal deutso umeari pentsatzera berak ebatzi behar dauala beti. Egoerak hobetuteko aukerak badagoz.





**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net




[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)









**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA